

Donostian, 2018ko apirilaren 20an

### UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

#### UDALAREN WEB ORRIAN ALBISTEAK ARGITARATZEARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udaltzaren Araudi Organikoko 98. artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, UDALBATZAN azter dadin. Mozioa hilabete honetako Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean egindako interpelazioaren ondorio da

#### JUSTIFIKAZIOA

Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean azaldu genuen moduan, martxoaren 20ko Bozeramaileen Batzordeak pentsioei buruzko erakunde adierazpen bat onartu zuen, eta osorik argitaratu zen Udalaren web orrian. Batzorde horretan bertan, beste zenbait erakunde adierazpen ere eztabaidatu eta onartu ziren, baina haiek ez ziren argitaratu, ez zuten halako zortetik izan. Hain zuzen, ez da ohikoa Bozeramaileen Batzordeak onartutako erakunde adierazpenak argitaratzea, eta Udaltzak onartutako beste ekimen batzuk argitaratzea ere ez.

Iruditzen zaigu udalaren web orriak hiritarrei gobernuaren kudeaketari buruzko informazioa emateko balio behar duela, eta Bozeramaileen Batzordeak eta Udaltzak onartutako kontuen berri emateko ere bai. Izan ere, web orri horren titularrak ez dira ez Gobernu ez udala osatzen duten taldeak: udala osatzen duten guztiena da.

Beraz, iruditzen zaigu Udal Gobernuak beharrezko kudeaketak egin behar dituela udalaren web orriak onartzen diren gauzei buruzko informazioa eman dezan, alde batera utzita gai zehatz batek une jakin batean eragin dezakeen aukera politikoa.

Hori dela eta, honako hau aurkezten dugu:

#### KONTROL MOZIOA

Donostiako Udaltzak udal Gobernuari eskatzen dio bai Bozeramaileen Batzordeak bai Udaltzak onartutako ekimenak argitara ditzala udalaren web orrian.

Sin.: Amaia Martin Garin,

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.